**ERREPORTAJEA ARTZAIN TXAKURREN TXAPELKETAK · GEHIGARRIA KILIBARREN**
**KULTUR ELKARRIZKETA SABIN OSORO**

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA 2002ko irailaren 27a/X. urtea/418. zkia



JON OSORO, artzain txakurren hezitzailea

## "Txakurra ezagutu eta momentu bakoitzian zer pentsatzen ari dan jakin bihar da"

"ARTZAI ETA TXAKUR JAIOAK, ARDIEN ONDOAN JAIOAK" (esaera zaharra)

# GOKI ERREFORMAK

111 111 •• 1111111 ~ CY1Mz pa@MIlt

Zatiriy2 o h.131 itn#:1



**Bainurako denetik**





**Hidromasajean adituak**



**Altzariak estilo guztietan**



**Bainurako osagarrietan aukera zabala**



**Ateekin lan egiten dugu baita ere**


Olaso Poligonoa, 15 68 pabiloia
TeL: 943 74 28 80 W 943 74 42 23 943 74 46 40
Faxa: 943 74 45 87
20870 ELGOIBAR

# 10 BARREN urteurrena




1942ko abenduaren 24o

## weta BARREN sortu zen

Bai, atzo goizeko kontua badirudi ere, aurtengo abenduaren 24an 10 URTE beteko ditu BARRENek. Olentzeroren erregalua izan zen. Hamar urte Elgoibarko berri euskaraz ematen, 10 urte elgoibartarren berri ematen, 10 urte elgoibartarron arteko distantziak txikitzen.

Hurrengo 10 aleetan, BARRENen historiaren laburpen txiki bat eskainiko dizuegu. Besteak beste, hamarkada honetan izan diren aldaketa inportanteenak, bertatik pasa diren langileak, diru-kontuak, bitxikeriak, berrikuntza teknologikoak eta beste hamaika gauza kontatuko dizuegu.

1991ko udaberria izango zen Txitxilibakiori agur esan (akordatzen?) eta aldizkari berri bat prestatzen hasi ginenean. Maite Rementeria eta Jasone Osoro kazetarien gidaritzapean, Elgoibarko Izarrak batzorde berezia prestatu zuen zeregin horretarako. Hasiera batean hilabetekaria prestatzeko ideia geneukan, baina ezetz esan ziguten, ausartak izateko eta astekaria prestatzeko. Astekaria astakeria zela entzun behar izan genuen baten baino gehiagotan. Izan zen barre egin zigunik ere. Baina ez genuen atzera egin. Udalak ere baietzeerantzun zigurt, gustatzen zitzaiola ideia eta laguntzeko prest zegoela. Lokala ere **Iferak** laga zigun.

Eta horrela hasi zen BARRENen historia. Badaki au 10 trrteko historia ez dela gauza handia. Baina inoiz handia izan nahi bada, aurretik txikia izaten jakin behar da. Datorren astean segituko dugu.



# Aurrera begira

Espainiar botere guztiek Euskal Herriaren kontra etengabe diharduten bitartean, Euskal Herriaren alde jokatzen dugunok, teorikoki behinizat, badaukagu zer hausnarturik. Batasuna, de facto, ilegala da. Bere egoitzak itxita edo ixte bidean, biltzeko, manifestatzeko eskubideak urraturik, Espainiako legeak egunez egun inposatzen... hori da aurrean daukagun panorama. Egoera honen aurrean PNVk legea bete behar duela dio. Oraindik ere ikusteko gaude nola betetzen duen legea euskal preso politikoak Euskal Herrian egoteko eskubidea berma dadin. Eta **hau ere** legeak agintzen du. Hitz potolo baina faltsu horien atzean edozein preziotan sinatutako paktoaren estrategia besterik ez dago. Daukaguna ahalik eta ondoen zaindu edo, gutxienez, Madrildik zenhat eta gutxiago kentzen diguten, hobe. Baina gauzak argitzen doaz. Elkarte Autonomoan ertzainak dira egoitzak ixten dituztenak, ertzainek egiten diete eraso manifestazioei, ertzainek jipoitzen dituzte abertzaleak. PNVren aginduz, noski. Azken batez, egungo instituzio guztiak, Ertzantza barne, Espainiakoinstituzioak dira. PNVren erantzukizunna, beraz, tamaina handikoa da egungo egoera honetan. Eta beste guztiok?

Egoera bere gordintasunean aztertzea dagokigula uste dut. PPk Franeo berak gauzatu zuen proiektua du gogoan: Espainia handia, bakarra eta eskumatarra. Euskal Herriko indar politiko, sindikal, demokratikook aurre egin behar diogu egitasmo honi eta Lizarra Garazik markatzen zuen konfrontazio demokratikora pausoak eman behar ditugu. Euskal Herriak hitza eta erabakia baldin badu, gaurdanik praktikara eraman behar dugu hori, gure legeak sortuz, Espainiatik datozenak alboratuz, herriaren gehiengoa gureganatuz. Hor dago erronka.

**Pello Mendizabal**

Kexak ........................................................ 5
motz motz ..........................................
oehiwirria ..........................................
kiRolAk '0
a Gencla ..............................................

# Urruzunoren
## begi ezkutua

### Itoitzen



Kantauriko ekaitzek suabe jotzen duten urteotan, marinelak lasaixeago dabiltza. Ilunak eta lainoek gero eta emakume gutxiago uzten dituzte senar patroi gabe, eta kostaldeko herrietan bizitasun berri eta pozgarri bat bizi da.

Gauak eta egunak, lanbroak, haizea bera baino azkarragoak diren izarrek marinel horien alaheharrak orrazten tlituzte.

Arrainak itsasazala dekoratuz arrantzale bihurtzen dira, eta itsasuntziek, baita aspaldian bale urdinak ekartzen zizkigutenak ere, hor daude, egonean, gure "flota" euskalduna "apuntoko" ikuspegiz.

Elgoibarren kostaldekoak gara nahi eta ez, badakite bai errezaleek marea beheran doblea enetzen dela, eta gorakoan hobea dela putz egitea erretzea baino.

**Joseba Esnaola**

ASTEKARIA
**BaRRen**

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
2' 943 74 41 12
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Heibide informatikoa:
www,topaeuneacomfbarren
ARMARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

LAouerzguke.o. Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUUNDARJA Asier Orbea KAZE7ARI0. Irati Agirreazaldegi, PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MIIKETATZAIIU Jaione Unanue AomuusinAzioa Amaia Rodrigez Genorrak Jon Peli llriguen KOLABORISTZAILEAX Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Neslor Fuenre, Pello Mendizabal, Juan M. Elustoodo, Atberlo Ansuategi, Edume Bilbao. Golzon Arrieta, Lorea Parez de Albeniz. Jokin Martinez, Montse Arregi, Juarato GoroslIza. Ainhoa Andonegi, Kokee K.E. era Urruzuno AZALEKO ESIIEFLA ZAHAFII1A Garzon Garaleren liburulik INPRIIIATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.025 ale LEGE GORMILUA 55-1.038192 ISSN 1139-1855

Ef ELGOIBAKKO . EARRA

*Elgotharka Udalak, Easka* Jaarlarilzaka Krdlam
*etrr Funi Aldundiak* diraz lagundutaka *aldizkaria.*

ac 31111 kutxa

i'DANGIBAT GOITI GRUPO GANOBAT ETARTA

**BOUTIQUE DEL PAN**

**Enpanadak** **Enbutidoak**
**Baserriko ogia** **Bolleria**

San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 Tl- 943 74 33 92

Unibertsitarien Elkartea
Asociaci6n Universitaria
**Tel.: 943 20 78 50**



Emakume batek Madalako parkea, San Pedroko kolunpioak, eta herriko auzoetako parkeak oso egoera kaskarrean daudela adierazi digu. "Linte askok jolasten du toki hauetan, eta apur bat gehiago zaindu beharko lirateke".



O Emakume batek esan digunez, Plaza Txiki atzeko etxea botatzeko, burnizko hesi handi bat jarri dute espaloi gainean, eta ez dago umearen kotxearekin pasatzeko lekurik. "Errepidera jaitsi behar izaten dugu, eta auto asko ibiltzen denez, oso arriskutsua izaten da. Obretako langileei, hesi hori apur bat mugitzeko eskatuko nieke".

## TXALOAK

- Herritar batek Errosario Kaleko elbarritu gunea margotu dutenak txalotu nahi ditu. "Jende askok aparkatzen zuen bertan, eta gune hauek errespetatu egin behar dira".



Barrak, Birrak eta Barreak




©KOKOE 2002■193

# Ardl txzforirak: ARTZAINEN LAN TRESNARIK

*Aiastiako (San Migel) jaien barruan Euskal Herriko Arraza Libreko Artzain Txakur Txapelketako Finalajokatuko da zapatuan (irailak 28), Bertan 10 artzain eta txakurrik onenak khiatuko dira, tartean Jon Osoro (34 urte) elgoibartarra eta "Pintro" bere txakurra, Gipuzkoako Txapelketan hirugarren sailkatuak. Jonek artzain txakurrak hezitzen ditu Sallobente-Ermuaran auzoko Arostegi baserrian eta hainbat artzain txakur txapelketatan hartu izan du parte, baita batzuk irabazi ere. Artzain txakurren munduak hainbat bitxikeria eta sekretu ezkutatzen ditu eta Jonek batzuk argitu dizkigu.*



### PALMARESA

Lau edo bost Artzai Txakur Txapelketa irabazi ditu: Zumaian, Mandubin, Elgoibarren bertan Sallobente-Ermuaran... eta bigarren askotan geratu da. "Bartzelonan Espainiako txapeldunorde ere izan nintzan eta Frantzian ere hartu naban parte. Han 20 txakurrek parte hartu zaben eta laugarren geratu ginan. Katalunian 13 aldiz izan naiz eto ixa danetan finalera ailegau naiz".

Txapelketetan bitxikeriarik ere gertatu zaio, "bigarren aldiz konkurso batera jun nintzanian, hain nauan nerbioso txakurrari txistu itxia nahi izan nionian ez jatala urten eta ni konturau ordurako txakurra ardixetara junda zauan, bandera danak pasauta".



*Argazkian artzain kataluniarrekin batera ageri da Osoro, Bartzelonan izandako txapelketan.*

### ARTZAIN TXAKUR HEZITZAILEA

Sallobente-Ermuaran bailarako Arostegi baserrian genuen zita Jonekin. Berehala egin zigun txakurrarekin lortu duen etkar-ulertzearen erakustaldia. Argazkiak ateratzeko ardiak inguratzeko eskatu eta Jonen Iaupabost agindu nahikoa izan ziren "Pintxo"-k, 7 urteko Border Collie txakurrak, artaldea otzan otzan guregana hurbiltzeko. Artzain txakurrak hezi eta artzain lanetarako saltzen ditu gero. "Urteko 5 edo 6 txakur preparatzen ditxut. Palma de Mallorca, Bartzelona eta Euskal Herri osoko klientiak dauzkat". Prezioei dagokienez 140.000 eta 200.000 pezeta balio dezake entrenatutako txakur batek, "kanpeoia dan txakur batek ez daka preziorik. Haren txakurkumiek, berriz, 30.000 pezeta balio dezakete. Linajia asko zaintzen da. Nik ere Españako txapeldun ordian semiak dauzkat".

### ARTZAIN 1NSTINTUA

Inon ikasi gabe, artzain txakurrak hezitzen bere kasa hasi zela aitortu digu Jonek, "beti euki dot artzai instintua eta aitxak ardi txakurra ekarri zianian preparau naban, baina ez naban konkursuetara eruan. Gero, Jose Antonio Arrillagari hartu nion "Pintxo" eta berakin ibili naiz oin artian. Lehenengo nere kasa hasi nintzan kriston hanka sartziak itxen eta azkenian txakurrak berak erakutsi zian. Txakur hau hilabetekin ekarri naban etxera eta bi hilabetekin ardixak biltzeko eta ekartzeko gai zan. Umetatik euki dau ardixetarako sena". Hezitzaile bakoitzak bere estiloa eta sekretuak omen ditu, "Jose Antonio Arrillagak asko lagundu dia, maixu haundixa da. Txakurrak indako falluak zela korregidu esan izan dia beti".

# 2EALENAK

## NOLA HEZITZEN DIRA ARTZAIN TXAKURRAK?

Txakurra hezitzen hasteko adinik onena 8-9 hilabete dela azaldu digu. "Aurretik obedientzia erakutsi bihar jako: etzaten, norberana etortzen eta konfiantzia hartzen. Ezer jakin gabe ardixetara junez gero ardixen bueltan ibiliko litzake, instintuak batzeko eta kontrolatzeko esaten diolako. Nerekin lanian ikasiz gero beste batekin ere igual-igual ingo dau lan".

**"Urteko 5 edo 6 txakur preparatzen ditxut. Palma de Mallorca, Bartzelona eta Euskal Herri osoko klientiak dauzkat"**

Egunetik egunera asko aurreratzen omen dute. "Hilahetian ardixetan itxeko prest eoten dia. Konkursorako, berriz, preparazio espeziala bihar dau. Adibidez, jendiakin ohitzeko jende artera eruatia komeni da. Bestela, egunian 5 edo 10 minutuko entrenamientuakin nahikua da. Txakur egokixa norberakin konfiantzia dakana da, gogor inda ere norberana bueltatzen dan". Pazientzia handia izatea eta psikologo lanak egitea oso garrantzitsuak dira, "Txakurrak beti ez dau egun ona eukitzen eta askotan hobe izaten da dana laga eta hurrengo egunian jutia. Txakurra ezautu in bihar da eta momentu bakoitzian zer pentsatzen ari dan jakin. Txakur bat egoskorra bada makilakada bat eman bihar jako, baina karakter bigunekua bada jo ezkero betirako bildurtu leike".

## BORDER COLLIE

Britainiar irletan du jatorria Border Collie txakur arrazak eta munduko txakurrik argiena moclura kontsideratuta dago. "Border Collietan hamar txakurretik bederatzi onak urtetzen dia. Beste Collien familixakuak dia baina arrazo diferentia da. Border Collietan ere bi bariedade daude; ile luzia eta motza. Konkursorako batzuk emia finauo dala esan arren, berdin da bata edo bestia erabili. Bakoitzak bere problemia daka: Emia udan alian jartzen da eta konkursora eruaterik ez dao. Arra, berriz, instintoz usainka hasten da".



Orain duen txakurra, Pintxo, txapelketetan ibiltzeko adin mugatik pasatzen hasita dagoela esan digu. "Konkursuen bizperan garbitxu itxen dou eta orcluan igartzen dau zeozer. Gero, konkursora ailegauta malizia haundixakin jokatzen dau eta ez dao engainatzerik. Hala ere, neri sekulako konfiantzia ematen dia nahiz eta failatzen hasi".

## ARTZAIN TXAKUR TXAPELKETAK

Etxeko ardiekin eta bertako zelaian entrenatzen du, baina beti berdin eginez gero, ardiek ikasi egiten dute. "Egunian-egunian lanak konplikau bihar dia. Konkursora jundakuan ardixak bizixauak dia eta zailaua izaten da. Bestalde, oso inportantia da konkursuan etxian bezela agintzia. Askotan konkursuan nerbioso jarri eta ezberdin agindu ezkero txakurra transtornau itxen da. Batzuk txistuz agintzen dabe eta beste batzuek eskuz edo makiliakin, baina nik beti berbaz eitxen diuet. Nere ahotsan tonuan arabera igartzen dabe noiz nauan kabreauta eta noiz ez. Horregatik, hasarratuta hobe da entrenatzera ez jutia. Txakurra sustau in leike eta agindutakua beste tono batekin esan ezkero, beste modu batera erantzungo dau".

**NORMALEAN ERABILTZEN DIRENAGINDUAK:**

4 **Etzan:** Mugimenduak kontrolatzeko.
4 **Ekarri:** Txakurrak instintoz ardiak zuzen ekartzeko.
4 **Erain:** Txakurrak eramateko.Txakurra ardien atzetik joan behar da.
4 **Pasa goitxik/behetik:** Ardiak eskuin edo ezkerrerantza mugituz gero txakurra auman jarri eta artaldea zuzentzeko.
**Bale:** Gelditzeko eta egiten ari den horretan ez jarraitzeko eta buelta emateko.

2002-IX-27

# Txankakua Elkarteak sariak banatu zituen merkatari azokan eta Zine Klubeko emanaldian

## Dendetako bezeroak eta zine zaleak eskertu nahi izan dituzte opari hauekin





*Ezkerrean, 60 euroko sarien jabeak elkarteko maskotekin. Eskuman, liburuak eta zinemaldirako sarreren irabazleak.*

Joan den larunbatean Txankakua Merkatari Elkarteko dendariek produktuak kalera atera eta azoka egin zuten Plaza Handian. Baina dendetako produktuak erakutsi eta salgai jartzeaz gain, herritarrei beste hainbat gauza eman zizkieten. Txikienei, esaterako, ongi pasatzeko aukera: beraientzako ipini zituzte gaztelu puzgarria, eskulan tailerrak... Baina hezerorik gabe merkatariek ezer gutxi egin dezaketenez, hauen leialtasuna eskertzeko 60 euroko 5 sari zozketatu zituzten. Honako hauek izan ziren zortedunak: Josune Aldazabal, Mirari Arrizabalaga, Nerea Juaristi, Julen Salaberria eta Merche Hernandez.

Zinema

Bestalde, Ongarri Zine Klubak Txankakuarekin elkarlanean Zinemaldiaren 50. urteurrena ospatzeko zikloa antolatu du. Zikloaren lehen saioan Zinemaldiko sari banaketarako sarrerak eta Diego Galanen "Jack Lemmon nunca cen6 aqui" liburuak zozketatu zituzten. "Taxi para tres" Zinemaldiko iazko film irabazlea Gipuzkoan estreinako aldiz Elgoibarren eman zutela kontuan hartuz jende asko izan zen zine klubeko emanaldian, antolatzaileen esanetan 100 lagun inguru hurbildu ziren Herriko Antzokira. Honetaz gain, Txankakuak bere bezeroen artean zine klubeko emanaldietara joateko 200 sarrera ere banatu zituen hilaren l9an.

# Edurne Altuna misiolari elgoibartarra hil da Venezuelan

## Pobreei iaguntzen lan asko egin du 40 urtez Maracaibon

Orain dela 50 urte Esclavas de Cristo Rey kongregazioan sartu eta 40 urtetik gora eman ditu Venezuelan behartsueri laguntzen Edurne Altuna Arriola misiolari elgoibartarrak. 77 urte zituela joan den astean hil zen Maracaibon, Venezuelan.

Heriotza honek ezustean hartu ditu Edurne Altuna ezagutzen zutenak. Izan ere, bi hilabetez oporretan herrian lagunekin eta senitartekoekin egon ostean, joan den astean itzuli zen Maracaibora pobreei laguntzera. Bertan hil zen ***eta*** joan den asteartean Venezuelan bertan izan zen hileta elizkizuna. Parrokiako Misio Taldeak deituta Edurne Altunaren omenez meza izango da datorren larunbatean, hilaren 28an, arratsaldeko 19:00etan Parrokian. Bide batez, senideei doluminak eman nahi dizkiegu,



## Kontzentrazioa izan zen plazan Leitzako atentatuaren aurka

Ibarretxe lehendakariak deituta joan den asteazkenean eguerdiko 12:00etan kontzentrazio isila egin zen udaletxe aurrean. Asteartean Leitzan izandako atentatuaren aurka protestatzeko ekintza izan zen. Bertan, Guardia Zibileko Juan Carlos Beiro kaboa hil zen eta beste lau zaurituta utzi zituen leherketak. Kontzentrazioan herritarrekin batera alkatea eta Udaleko beste hainbat ordezkari izan ziren. 15 minutuz isilean egon ondoren txalo zaparrada batekin amaitu zen bilkura.



## Gurean Bal-Merkatarliza proiektua aurkeztuko dute herriko dendetan

Elgoibarko Izarrak eta Udalak herriko dendetan, ostalaritzan eta zerbitzuetan euskararen erabilera indartzeko proiektua prestatu dute: Gurean Bai-Merkataritza. Datorren astean hasita. argazkiko Arritxu Urbieta eta Itsaso Ezenarro dendaz-denda ibiliko dira, dendariei banan-banan proiektua aurkezten. Proiektuan sartzea erabakitzen duen dendariarekin bere neurriko plana adostuko da. euskararen ahozko eta idatzlzko erabilera indartzeko. eta Gurean Baik hitzannena bete ahal izateko laguntza osoa eskainiko die. 2003ko urtarrilerako proiektua martxan izatea espero dute.






## Alzheimerraren eguna ospatu zuten Gipuzkoako gaixoek eta senideek Elgoibarren

Alzheimer gaitza buruko gaixotasuna da eta nortasun eta funtzio intelektualen galera eragiten du. Gaixotasuna duten pertsonek beraien eguna ospatu zuten joan den astean. Gipuzkoako zenhait lekutan gaitzari buruzko hitzaldiak eman zituzten adituek eta horretaz gain, zine forum-a eta informazio stand-a ere antolatu zituzten. Asteari amaiera emanez, igandean Afagi Alzheimer laixotasuna dutenen Gipuzkoako elkarteak antolatuta, bazkaria izan zuten gaixoek eta senideek Elgoibarren. Aurrez udaletxean han̄era egin zieten dantzari eta bertsolarien saioekin. Bazkaritara 90 lagun bildu ziren.

## Biluzik Zerhitzuak sexuaren inguruko ekitaldiak antolatu ditu

Elgoibarko Udalak Biluzik Sexologia Zerbitzuaren bitartez hainbat ekintza antolatu ditu. Ekitaldiak urritik abendura bitartean egingo dira eta Haizea Emakume Taldea eta Errotatxo kolektiboa Biluzik Zerbitzuarekin elkarlanean aritu dira antolaketan. Ekitaldi hauen helburua homosexualitatearen inguruko uste okerrak argitzea, kondoiaren erabilera bultzatzea, jokahide arriskutsuak gutxitzea, eta Biluzik Errotatxo eta Haizea henitarrengana hurbilduz eskaintzen dituzten zerbi tzuak ezagutaraztea. Horretarako Lotsa Gabe antzerkia izango da lehen emanaldia. Lan honetan sexu heziketari buruzko hainbat argibide emango dituzte aktore gazteek. Antzerkiaren aurretik Herriko Antzokian "Sex Txokoa" mahai informatiboatiboa ipiniko dute liburu, antisorgailu mostra, folleto... ezberdinekin. Mahai hau urritik abendura artean toki ezberdinetan ipiniko dute. Bestalde, abenduan, emakumea eta HIESA hitzaldia izango da.




*"Zuretzak" lemapean kondoiak banatuko dira gazteen artean.*

## Donostiako zinemaldiak 50 urte bete ditu

# ZEIN IZANI 31 EINE BIZITZAN GEH1EN GUSTATU ZAIZUN PELIKULA?



### ISABEL URRUSOLO

60 urte, etxekoandrea

Igande askotan juten gera zinera, eta azkenaldixan ikusitxakuetatik gehixen gustau jatana "el hijo de la novia" izan da. Pelikula romantikuak gustatzen jata eta nere aktore gustukuena Richard Gere da.

### JUAN MARI URKAREGI

34 urte, pintorea

"Titanic" asko gustatu zitzaidan. Pelikula poliziakoak eta suspentsedunak gustatzen zaizkit gehien. Aktore bat aukeratzekotan, Kevin Costner hartuko nuke, baina Sean Conery ere asko gustatzen zait.





### BRAULIA MORENO

47 urte, etxekoandrea

Richard Gere asko gustatzen zait, eta bere pelikulak oso gustura ikusten ditut. "Pretty woman" asko gustatu zitzaidan. Komedia erromantiko tankerako pelikulak gustatzen zaizkit gehien.

### JOSEBA GABILONDO

10 urte, ikaslea

"El señor de los anillos". Abentura asko ditxu, eta holako pelikulak asko gustatzen jataz. Oso politxa izan zan. James Bond-en pelikulak ere oso gustura ikusten ditxut.





### ANGEL SANCHEZ

46 urte, pintorea

Oesteko pelikulak gustatzen zaizkit, eta barre egiteko pelikula espainolak ere ikusten ditut. Alfredo Landa, edo Paco Martinez Soriaren edozein pelikula. Robert Reford eta Paul Newman ere atsegin ditut,

### MARI KARMEN AZPIAZU

59 urte, etxekoandrea

"Lo que el viento se llev6". Zine beltza ere gustatzen zait, adibidez, "La mujer del cuadro". oso ona da. Aktore klasikoak denak gustatzen zaizkit, eta oraingoen artean, Nicolas Cage gustatzen zait asko.



IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.

ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**

IZENA EMATEAN `YoiCIEKO BEHERAPENA

944.1pd vpiputoolea ai¡motetvido4 l 6 6Otelel,

LARRAIIAGA
AUTOESKOLA
Tel: 943 74 10 11

2002-1X-27

# osasuna

## Osasun txokuak



VICTORIA IRAEGI
MASAJISTA

# KONPETIZIO AURREKO MASAJEA eta MASAJE BERRITZAILEA "STRETCHING"-AREKIN

Kirola egin aurretik beroketak egitea oso komenigarria da. Programatutako beroketa horren baitan masajea eta kontrolatutako luzatze ariketak (Stretching) egitea komeni da, beti ere beroketa egokia iz.an dadin.

**Zertarako egiten dira konpetizio aurreko masajeak?**

- Odolaren zirkulazioa hobetzeko.
- Giharren elastikotasuna eta hauen errendimendua ontzeko, lehiaketako esfortzura piskanaka ohitu daitezen.
- Giharretako lesioak ebitatu eta giharrek esfortzua koordinatzeko.
- Kirolaria fisikoki eta fisiologikoki lehiarako prestatzeko.

Masajea, luzatze ariketekin batera (teinkatu, erlajatu, luzatu), lesioak ebitatzeko jarraitu behar diren pauso teknikoetariko bat da.

Konpetizio ostean giharrak gehiegi ez kargatzeko masaje berritzailea hartzea komeni da, honela kirolaria azkarrago etorriko da bere onera.

**Masaje berritzailearen funtzioak:**

- Konpetizioaren ostean zein kirola egiten ari den bitartean sortutako, kontusioak, distentsioak, kontrakturak, hematomak edo beste lesioak sendatzeko.
- Nekatutako giharreak "deskargatu" eta ondorengoak gerta daitezen hondakinak desagertarazi:

  * Odol emaria hobetu, gihar-ehuna hornituz eta giharren energia iturri den glukosa sartuaraziz.
  * Nekea atzeratu.
  * Minak eta kalanbreak ebitatu.
  * Giharren Ian gaitasuna bere onera ekarri.

Masaje berritzailea stretching-arekin konbinatuz gero eraginkorragoa izango da eta errazago arinduko da nekea,

**Osasunari buruzko kezkaren bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeko 943 74 41 12ra**

### MASAJISTAK

**Victoria Iraegi**
P. M. Urruzuno, 31 • Tel: **943 74 07 70**
Astelehen-asteazken-ostiraletan: 15:00-19:00
Astearte-ostegunetan: 9:00-15:00

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

**Kemen** Belardenda
(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia. makrobiotika. yoga)
San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**
Egunero: 9:00-13:00 / 1 6:30-20:00

**Surya Belardenda**
(Osasun naturalaren zure zentroa Elgabarren. Inforrna zaitez)
San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

### OPTIKAK

**Ikus** Optiko-optometrista
San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri**
(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**
San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK

**Ibiltzen**
Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**
Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

**Iñaki Rivero**
San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**
Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

**Oinberri**
Errosario kalea, 25 • Tel: **943 74 17 95**
Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30
Larunbatetan: 10:00-13:00

**Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra**

2002-1X-27

# Batxilergoan eta Heziketa Zikloetan 491 ikasle matlikulalto dira

## Bestalde, 120 gaztek eman du izena Institutuan DBHko ikasketak egiteko

*Barreneko 416. alean eskoletako matrikulazio datuak eman genizkizuen. Hala ere, herriko ikasteixe publikoei zegozkien DBHko datuak falta ziren bertan. Honako hauek dira Institutuko DBHko matrikulazio datuak, bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak eta baita batxilergoetako eta zikloetakoak ere. fkastolan Batxilergoan zenbot ikasfea crri diren ere emango dizuegu jakitercr.*



INSTITUTUA

| Bigarren hezkuntza | ikasleak |
|---|---|
| DBHI | 20 |
| DBH2 | 34 |
| DBH3 | 38 |
| DBH4 | 28 |
| **Batxilergoa 1. maila** | **ikasleak** |
| Natur eta Osasun Zientziak | 40 |
| Giza eta Gizarte Zientziak | 36 |
| Teknologikoa | 26 |
| **Batxilergoa 2. maila** | **ikasleak** |
| Natur eta Osasun Zientziak | 59 |
| Giza eta Gizarte Zientziak | 38 |
| Teknologikoa | 32 |
| **Erdi mailako heziketa zikloak** | **ikasleak** |
| Ibilgailuen Elektromekanika (Auto) | 5 1 |
| Karrozeria (Auto) | 32 |
| Erizaintzako laguntza osagarriak | 35 |
| Merkataritza | 24 |
| **Goi mailako heitketa zikloak** | **ikasleak** |
| Administraritza eta finantzak | 32 |
| Automozioa | 37 |
| Ingurugiro osasuna | 25 |
| **Guitira** | **587** |

IKASTOLA

| Batxilergoa 1. maila | ikasleak |
|---|---|
| Natur eta Osasun Zientziak | 3 |
| Giza eta Gizarte Zientziak | 11 |
| Teknologikoa | I 0 |
| Giutira | 24 |

**OIERKI** IGOGAILUAK

II Urrutira deitu gabe bertakook segituan

943 82 01 09 Faxa: 943 82 01 62

Indalezio Ojanguren 2, behea 111 **20600 EIBAR**



**INTURAK**

*PEDRO PEREZ BERISTAIN*

Xixilion, 2 3.soloa 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

KiliBaRRen

2002ko irailoren 27a/IX. urlea/88.

# Jende falta dela-eta, Kilimon taldeak ez du futbol denboraldia hasiko

## Joan zen denboraldian 2. erregional mailara jaitsi ziren, eta aurtengoan ez dute ekipo berria osatzerik lortu

1972. urtean sortu zen Kilimon K.E Gurutzpe Kultur Elkartearen babesarekin. Aurten, Kilimon futbol taldeak 30 urteko historiari agur esan dio. Elias Arriola presidenteak esan digunez, elkartea ez da desegin eta ahal izanez gero, datorren urtean berriro saiatuko dira taldea osatzen. Iazko denboraldia txarra izan zen Kilimonentzat. Arazo asko izan zituzten lehenengo bueltan batez ere, eta bigarren bueltan eginiko lana ez zen nahikoa izan. Taldea 2. erregional mailara jaitsi zen, eta aurten ez dute ekipo berria osatzerik lortu. Elias Arriolak adierazi digunez, Kilimonen arazo larriena jende falta da: "Mendaro herri txikia da, eta handitzen ari den arren, jende gutxi bizi da oraindik. Gainera, gaur egungo gazteek ez daukate lehengoek zeukaten zaletasuna". Azken urteetan jendeari tiraka aritu dira taldea osatzeko, eta aurten ezin izan dute. Presidentearen hitzetan, "gaur egungo gazteak oso ondo ohituta daude, eta ez dute Ospas Gainen jokatzerik nahi". Arriolak berak esan digun bezala, inguruko herrietan talde berri asko sortu da, eta jendeak nahiago du han jokatzea. Elias Arriolak esan digunez, Kilimon ez da behin betirako desagertu: "datorren urtean saiatuko gara berriz taldea osatzen. Badakigu zaila dela, baina gazteak animatuz gero, zerbait egingo dugu".



*Azken partidua jokatu zuen taldea.*

# Aurten 50 urte bete dituzten 20 mendarotarrek kinto bazkaria izan zuten

1952an jaio eta aurten 50 urtera helduko diren mendarotarrek ospakizuna izan zuten joan zen larunbatean. 20 lagun elkartu ziren gutxi gora behera. Eguerdiko 12:00etan meza izan zuten Garagartzako elizan, eta gero Landa erretegian bazkaldu zuten. Esan digutenez, oso egun polita igaro zuten. Herritarrez gain, kanpoan bizi diren mendarotarrak ere gerturatu ziren.



## Argazki erakusketa izango da Udaletxean

Arima eta literatura izeneko argazki erakusketa antolatu du Mendaroko Udalak. Erakusketa irailaren 27tik urriaren 4ra luzatuko da, eta argazkiak udaletxeko Arno-Otarre aretoan ikusi ahal izango dira. Bisita orduak astearte, ostegun eta ostiraletan arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan eguerdiko 12:00etatik 14:00etara izango da.

## Taupada taidearen emanaldia Azpilgoetako Elizan

In Leike euskara taldeak antolatuta, Taupada antzerki talde elgoibartarraren emanaldia izango da Azpilgoetako elizan. Ikuskizuna gaur, ostirala, izango da, gaueko 21:30etatik aurrera. Taupada antzerki taldeak, "Printze Txikia" emanaldia eskainiko du, eta sarrera dohainik izango da.

## Lehiaketa gastronomikoa izango da urriaren lean

Lagun Betikoak egoitzak antolatuta, lehiaketa gastronomikoa izango da datorren urriaren 1eari. Partaideek gisatua prestatu beharko dute, eta onenak irabaziko du. Lehiaketa herrikoia izango da, eta Lagun Betikoak egoitzako bazkideek soilik hartu ahal izango dute parte. Lehiaketa Goftati frontoian hasiko da arratsaldeko 16:30etik aurrera.

# Mendaron ere eu

## IN LEIKE EUSKARA TALDEAK, ELGOIBARKO AEK EUSKALTE(
## EUSKALTEGIA SORTZEKO LANETAN DIHARDU

*Txikia izanik, azken urteotan asko hazi da Mendaro. Poliki-poliki industrigune garrantzitsua bilakatu da, eta eixebizitza ugari eraiki dituzte. Herri txikia da oraindik Mendaro, baina jende asko etorri da azken boladan kanpotik. Asko euskaldunak dira, baina badira erdaldunak ere. Guraso erdaldunak dituzten ume asko dago herrian, eta gaztetxoen artean erderarako joera nabari omen da azkenaldian. 1kastolan euskaraz hitz egin arren, etxean gaztelera bakarrik entzuten du askok. 1n Leike euskara taldea arazoaz konturatu da, beraz, euskaltegia jarri du martxan.*




Elgoibarko AEK euskaltegiarekin elkarlanean, In Leike euskara taldeak, gela desplazatuak antolatuko ditu 2002/2003 ikasturterako. Hasiera batean euskaltegia sortzea zen beraien helburua, baina In Leike taldeko kideek esan digutenez, oso zaila da: "Elgoibarko AEK euskaltegira joan ginen informazio eske, baina Mendaron euskaltegia sortzeko diru asko behar dela esan ziguten". Hala ere, Elgoibarren beste irtenbide bat proposatu zieten: "8 pertsonako taldeak osatuz gero, gela desplazatuak antolatu daitezkeela esan ziguten. Hau da, Elgoibarko AEK euskaltegialc. gela bat Mendaron edukiko luke". Honekin batera, irakaslea eta materiala AEK-k ordainduko luke. Aukera honi heldu diote azkenean, beraz, euskara ikasteko beharra duen jende guztia animatu nahi dute.

### Beka sistema

Ordainketa egiteko erraztasunak eskaintzen dituzte. Hauek dira beka sistema horretan sartzeko baldintzak:

- Ikasle, langabetu eta 12 urtetik beherako seme-alaba daukaten gurasoek mattikula erdia ordainduko dute.
- Klase guztien %90era joanez gero, ordaindutakoaren %75a bueltatu egingo da.

Udalak ekonomikoki lagundu dio In Leikeri, baina ez da nahikoa izan: "Udalarelcin izan ditugun harremanak egokiak izan dira, baina ez dugu guk nahi genuen dirulaguntza guztia lortu. Azkenean kultur ekintzak antolatzeko geneukan diruaren zati bat beka sistema ordaindu ahal izateko gorde dugu, eta beharbada ez da nahikoa izango".

### Euskaltegiaren beharra

Duela pare bat urte ere, In Leike taldekoak saiatu ziren euskaltegia sortzen. Ordura arte kultur ekintzak antolatzen zituzten batez ere, baina euskara talde bezala, hizkuntza indartzeko zerbait gehigo egin behar zutela erabaki zuten. Kanpoko jende asko bizi da Mendaron gaur egun, eta gehiengoa erdalduna da. "Bertako jende askok ere ez daki euskaraz, eta euskara talde batek zerbait egin behar du jendeak euskara ikasteko", esan digute In Leike taldekoek. Mendarotar asko kanpora joaten zen orain arte euskara ikastera. In Leikekoek esan digutenez, "askok lagatzeko asmoa zeukaten, baina herrian ikasteko aukera emanez gero, gustora jarraituko dutela adierazi digute". Mendaroko ikastetxe bakarra Ikastola da, eta ume guztiek euskaraz ikasten dute. Guraso askok arazoak dituzte beren seme-alabekin komunikatzeko, beraz, aitzakia hori aprobetxatuz, euskaltegia sortzeko momentua dela ikusi dute In Leikeko kideek.

**"Kanpoko jende asko etorri da Mendarora eta gehienek ez dakite euskaraz"**

Hilabete osoa egon dira jendea informatzen. Hasiera batean oso jende gutxi animatu bazen ere, dagoeneko gela bat osatu dute, eta bigarrena ere osatuko delakoan daude. Izena emateko epea gaur bukatzen da, baina norbaitek euskara ikasteko gogoa izanez gero, 657 72 28 36 telefonora deitu dezake.

# ikaraz

## iIAREKIN ELKARLANEAN,

**EUSKERAREN KALE ERABILERAREN NEURKETA**

**MENDARO**

| | |
|---|---|
| ZTANLE KOPURUA | 1.287 |
| JSKALDUN KOPURUA | 992 *(77,10%)* |

**EURTUTAKO HIZTUN KOPURUA**

| | |
|---|---|
| JSKARAZ | 338 *(%54,08)* |
| AZTELAN1AZ | 287 |

**INAREN ARABERAKO ERABILERA**

| | *EUSKARAZ* | *ERDARAZ* |
|---|---|---|
| | 79 (%69,30) | 35 |
| AZTEAK | 46 (%58,97) | 32 |
| ELDUAK | 141 *(%49,82)* | 142 |
| D1NEKOAK | 72 *(%48)* | 78 |

**Antonio Gerola**

## "Lagunek nirekin euskaraz hitz egiteak, asko pozten nau"



Antonio Gerolak 30 urte ditu. Esan digunez, txikitan ikasi zuen euskara, baina hitz egiteko arazo gehiago zituen: "ulertu eta irakurtzen banekien, baina hitz egitea gehiago kostatzen zitzaidan". Iaz Elgoibarko euskaltegian hasi zen, eta oso gustura ibili den arren, egunero Elgoibarrera joatea oso gogorra egiten dela azaldu digu. "Lagun batek animatu ninduen, eta biok joaten ginen Elgoibarrera, baina egun osoa lanean pasatu ostean, oso gogorra egiten zitzaidan". Antoniok esan digunez, jende guztiak gazteleraz hitz egiten zuen berarekin, eta berak euskaraz hitz egiteko gai izatea nahi zuen: "Lagunek euren artean euskaraz egiten zuten, baina nirekin beti gazteleraz. Orain euskaraz hitz egiten didate, eta horrek asko pozten nau". Aurten Mendaron eman du izena, eta esan digunez, euskaraz ondo moldatu arte ikasten jarraitzeko asmoa dauka,

**Ana Mari Pelayo**

## "Etxekoekin euskaraz hitz egin ahal izatea da nire nahia"



Gaztetan Donostian aritu zen lanean Ana Mari, eta berak esan digunez, orduan saiatu zen euskara ikasten: "Euskaltegian ibili nintzen, baina urte asko pasatu dira. Orduan hitz egiten nuen euskaraz, baina orain ez daukat euskaraz mintzatzeko gaitasunik". Familia euskalduna dauka Ana Marik. eta kalean ere euskal giroan bizi da. Berak esan digun moduan, "nire nahia etxekoekin euskaraz hitz egin ahal izatea da, ez daukat titulu bat ateratzeko beharrik, euskara ulertu eta hitz egitea da nire helburua¯. Ana Marik bi alaba ditu, eta biak Ikastolan dabiltza. Alde horretatik laguntza handia dauka Ana Marik: "Nire alabek eta senatTak euskaraz hitz egiten dute euren artean, eta horrek asko lagunduko dit. Asko animatu naute, eta hemendik aurrera etxean euskaraz hitz egiten saiatuko gara". Orain arte ez du euskara ikasteko aukera askorik eduki: "Mendaron ez zegoen euskaltegirik, eta ez neukan kanpora joateko astirik". Ana Marik esan digunez, gogo eta ilusio handiz hasiko da euskara ikasten: "Inork ez nau derrigortu, nire nahia da, eta gauzak norbere gogoz egiten badira, ondo egiten

# Erretratu zaharra



